

Lehen proiektua (urteko lehen 3 asteak)

Goizeko harrera orotara 15-20 min				
Mota	Zer	Helburua	Nola	Materiala
Talderatze jokoa	Joko kooperatiboak	Talde kohesioa piztu Elkar ezagutu Hurbiltasuna bultzatu	Hasi aitzin azaldu joko kooperatiboen helburu nagusia talde kohesioa dela. Jokoa 6-10 haurrekin egitekoak dira (beharrez talde bat baino gehiago eginez). <u>Lehen jokoa</u> : continuum 6-8 ikasleko taldeka segidak edo sailkatzeak egin, adibidez ortzadarraren koloreekin, gehien maite dutenaren arabera sailkatuz, gero jeiki diren tenorearen arabera, haien neurriaren arabera, haien ileen luzetasunaren arabera, begien koloreen arabera, sortu diren hilabetearen arabera, haien izeneko lehen hizkiaren arabera... utzi haurrak proposamenen egiten. <u>Bigarren jokoa</u> : kukulauka asmatua Adosten da eremua, bakoitzak pentsatzen du nun gorde litaikeen, baina ez dira egiazki gordetzen. Asmatu behar dute bakoitza nun gordea den. Garrantzitsua da, jokoa ibiltzeko, egia erraita! Gero jokoa berriz egin, hasi aitzin bakoitzak hautatuz zer neurritakoa den... irudimen joko bikaina! <u>Hirugarren jokoa</u> : korapiloa	/

			<p>Haurrak borobilean ezar, erdira so, elkarren ondo ondoan. Galdegin deneri ezkerreko besoa altxatzea eta borobileko beste baten eskua harrapatzea, gero berdin eskuineko besoarekin. Segurtatu nehork ez duela bere ondoko baten eskua hartu. Helburua da korapiloa desegitea eskuak askatu gabe!</p> <p><u>Laugarren jokoa</u> : arto zartatuak</p> <p>Musikarekin haurrak libreki ibiltzen dira. Musika gelditzean helduak kopuru bat eta gauza bat erraten du. Adibidez : « kadera 2 » Biaka ezartzen dira eta kadera bat egiten dute gorputzekin, bikote guziek lortua dutelarik musika berriz hasten da.</p> <p>Gauza zerrenda : ogi xigortzekoa, pianoa, garbigailua, elefantea, autoa, haritza,...</p> <p>Aldaera gisa, helduak erran dezake batzutan « trena denek » eta talde bakarra osatzen dute, edo deia egin duten gauza bat berriz erran eta oroitu behar dute norrekin egin zuten eta berriz egin.</p> <p><u>Bosgarren jokoa</u> : baloia</p> <p>Haurrak borobilean, eskuz esku.</p> <p>Helduak hantzen den baloi bat botatzen du airean erdian, ahal bezain luzaz airean atxiki behar dute, eskuak askatu gabe, baloia buruz, besoz, ukondoaz,... joz.</p> <p><u>Seigarren jokoa</u> : ipuin amaigabea</p> <p>Helduak (edo haur batek) ipuin bat hasten du lehen esaldia</p>	<p>/</p> <p>Hantzen diren baloiak</p> <p>/</p>
--	--	--	---	--

			eginez, aldizka esaldi bat gehitzen dute. Proposatzen ahal da esaldiak « zorionez » edo « zoritxarrez » hitzekin hastea, biper pixka bat gehitzeko !	
Zentratzea	Brain gym	Estresa Hipitu Areta areagotu	<p>Lehenik, xorta bat edan.</p> <p>Segurtatu bakoitzak espazioa baduela bere inguruan.</p> <p>Plazer mementu bat izanen dela adierazi.</p> <p>Bi jarduera egin daitezke egunka. Azken saioetan behar bada denak bata bestearen ondotik, fitexago.</p> <p><u>Lehen jarduera</u> : belarriak zabal zabal</p> <p>« Mintzatu edo entzun aitzin ene kaskoa ezartzen dut, belarriak torratuz, barnetik kanpora, eta gaineratik behererat. Horrek laguntzen nau entzuten, oroitzen, eta atentzioa ukaiten.»</p> <p><u>Bigarren jarduera</u> : mugimendu kurutzatuak</p> <p>« Eskuin ukarearekin ezker belauna hunki, eta gero ezker ukarearekin eskuin belauna hunki, lehenik begiak idekirik... gero, begiak hetsirik... gero fitexago. Azkenik geldirik egon. Ariketa horrek burumuineko 2 hemisferioak betan arrarazten ditu, arrakonektatzen laguntzen gaitu, konzentratzen. »</p> <p><u>Hirugarren jarduera</u> : 8a etzanik</p> <p>« Eskuin besoa aitzinera zabaldu, erri pototsa goiti so. Erria begiratu eta erditik abiatuz goiti buruz eskuinaldera 8 erraldoi bat marraztu airean. Hiru aldiz berdin. Gero beste</p>	Brain gym afitzak A3an

			<p>eskuarekin berdin bestaldera, 3 aldiz.</p> <p>Horrek laguntzen gaitu orekan izaiten, koordinazioa lantzen baita ikusmena, beharrezkoa irakurketan adibidez.</p> <p><u>Laugarren eta azken jarduera</u> : elefantearen belarriak</p> <p><< Berriz ere 8a etzanik, aldi huntan besoa belarriari loturik, gorputz guziak mugimendua segituz, aldi bat alde batean, aldi bat bestaldean beste besoarekin, segi aldizkatuz. >></p>	
Eguraldia	Eguraldia emotikonoekin	Sentimenduak adierazi	<p><u>Lehen jarduera</u>, aste osoan errepika daitekeena.</p> <p>Emotikonoak lurrean pausatuta dira han hemenka, haurrei itzulian ibiltzea galdatzen zaie, ixiltasunean, polliki polliki bakoitza emotikono egokiaren aitzinean gelditzen da. Segurtatzen du bere lekuan dela, bestenaz mugitzen da. Denak geldituak direlarik bakoitzaren posizioa begiratzen dute ixiltasunean.</p> <p>Oharririk ez da egiten, justu oroitazten zaie ikusi dutenaren arabera haien jarrera egokitzen ahalko dutela bakoitzaren umoreari. Irakasleak ere egiten du.</p> <p><u>Bigarren jarduera</u>, bigarren astean egunero errepika daitekeena.</p> <p>Ikasle bakoitzari emotikonoen fitxa ematen zaio, erritualen kaieran kolatzeko. Egunero emotikono bat margotzen du.</p> <p>Laukoteka aipa dezakete.</p> <p><u>Hirugarren jarduera</u>, hirugarren asteko.</p>	<p>Emotikono karta handiak, koloreztatuak eta plastifiatuak (haurrekin egin daitezke)</p> <p>Emotikono Htipien fitxa haur bakoitzarentzat</p> <p>Emotikono</p>

			Haur bakoitzari 2 emotikono karta ematen zaizkio (pozik eta triste), binaka, bi kartak erabiliz nola sentitzen den erakusten dute, karta bat gehiago agertuz, bestea gibelean gordetuz,...	karta pareak ikasle guzientzat
--	--	--	--	-----------------------------------

Aratsaldeko errituala 15 min				
Mota	Zer	Helburua	Nola	Materiala
Talderatzea Elkarbizitza	Antzerkittoak	Antzerkiaren bidez harremanak askartu taldeka Elkarbizitza egoerak antzetzuz identifikatu, aipatu, distantzia hartu	Talde Htipika, elkarbizitza antzerkittoak banatu, trebatu gogoz ikasi arte. Prest direlarik talde bakoitzaren aurkezpena besteei. Antzerkien mamiaz hitz egin daiteke ondotik. Haien esperientziak aipa ditzakete.	Antzerkittoak fotokopiatu rik

Egun bukaerako gora beherak 10 min				
Mota	Zer	Helburua	Nola	Materiala
Bilana	Gora	Egunaren	<u>Lehen moldea</u> : klasikoa	Mintza makil

	beherak	bilana egin Etxera lasai joan	Aldizka eguneko gora eta beherak partekatu, ahoz, talde handian. Egiten ahal da lehenik « behera » guzien itzulia eta gero « gora » guziena, edo aldizka, haurka, biak kontatuz. <u>Bigarren moldea</u> : Ahoz beti ere baina 2naka edo 3naka. Hirugarren moldea : Idatziz, haur bakoitzak bere erritualen kaieran Gora beheren fitxa kolatuz.	gisa erabiltzeko « yoyo » bat. Gora beheren fitxa haurka. Gora behera afitzak A3an
--	---------	-------------------------------------	---	---

AMA IKASTOLAN

Egunean hiru une ikusten dira egoki erritualen hasteko...

Lehen erritual unea, aire hartzetik itzultzean : zentratzea eta eguraldia (brain gym eta emotikonoena egokia izan daiteke)

Bigarren errituala, eguerdi aitzin : talde kohesioa (continuum ximpleenak eta baloinarena egokiak izan daitezke, aldizkatzen ahal da kaderen joko kooperatiboarekin zeintan kadera bat kenduz haur batek bestearen altzoan jarri behar duen...)

Hirugarren errituala, arratsalde bukaeran : bilana (gora beherak egin daitezke ahoz afitzak erabiliz)

BRAIN GYM Lehen jarduera : belarriak zabal zabal

<< Mintzatu edo entzun aitzin ene kaskoa ezartzen dut, belarriak torratuz, barnetik kanpora, eta gaineratik behererat.

Horrek laguntzen nau entzuten, oroitzen, eta atentzioa ukaiten. >>



BRAIN GYM Bigarren jarduera : mugimendu kurutzatuak

<< Eskuin ukarearekin ezker belauna hunki, eta gero ezker ukarearekin eskuin belauna hunki, lehenik begiak idekirik... gero, begiak hetsirik... gero fitexago. Azkenik geldirik egon.

Horrek burumuinako 2 hemisferioak betan arrarazten ditu, arrakonektatzen laguntzen gaitu, konzentratzen.>>



BRAIN GYM Hirugarren jarduera : zortzia etzanik

<< Eskuin besoa aitzinera zabaldu, erri pototsa goiti so. Erria begiratu eta erditik abiatuz goiti buruz eskuinaldera 8 erraldoi bat marraztu airean. Hiru aldiz berdin. Gero beste eskuarekin berdin bestaldera, 3 aldiz.

Horrek laguntzen nau orekan izaiten, koordinazioa lantzen baita ikusmena, beharrezkoa irakurketan adibidez. >>



BRAIN GYM Laugarren eta azken jarduera : elefantearen belarriak

<< Berriz ere 8a etzanik, aldi huntan besoa belarriari loturik, gorputz guziak mugimendua segituz, aldi bat alde batean, aldi bat bestaldean beste besoarekin, eta segi aldizkatuz.

Horrek oreka lantarazten dit eta koordinaketa.>>



Gora beherak

<p><u>Eguna :</u></p>	<p>Behera</p> 	<p>Gora</p> 
<p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p>
<p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p>
<p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p>
<p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p>


Behera



Gora









www.coloriage.com









[www.coloriage](http://www.coloriage.com)


















Zer bada,
garrantzitsurik enetzat,
asea dena egoeran ?

Zer bada,
garrantzitsurik enetzat,
asea dena egoeran ?

Zer bada,
garrantzitsurik enetzat,
asea dena egoeran ?

Zer bada,
garrantzitsurik enetzat,
asea dena egoeran ?

Zer bada,
garrantzitsurik enetzat,
asea dena egoeran ?

Zer bada,
garrantzitsurik enetzat,
asea dena egoeran ?



Zer bada,
garrantzitsurik enetzat,
ez dena asea egoeran ?

Zer bada,
garrantzitsurik enetzat,
ez dena asea egoeran ?

Zer bada,
garrantzitsurik enetzat,
ez dena asea egoeran ?

Zer bada,
garrantzitsurik enetzat,
ez dena asea egoeran ?

Zer bada,
garrantzitsurik enetzat,
ez dena asea egoeran ?

Zer bada,
garrantzitsurik enetzat,
ez dena asea egoeran ?

AHARRAN

Jon: Mikelek baztertzen nau.

Erakaslea: Mikel, zato hunat. Zer gertatzen da Jonekin? Zergatik baztertzen duzu?

Mikel: Ez dut baztertzen! Berak du erran ez zuela gehiago gurekin aritu nahi.

Jon: Hori erran dut ez dituzulako legeak errespetatzen. Bi punpe eginaraztea ez da haizu eta zuk, nahiz eta bi punpe egin, erraiten duzu punpe bat baizik ez duela egin.

Mikel: Ez da egia. Punpe bat baizik ez du egin. Zuk duzu gaizki ikusten. Zernahi gisaz ez duzu galtzea jasaiten. Beti hola da zurekin. Jokoan hasten zira eta gero zinkurinaka joaiten zira.

Jon: Ez da egia. Zuk duzu zure aintzindariarena egin nahi. Beste guziak zure mende abiki nahi dituzu.

Erakaslea: Lasai zaitzte. Lehenik legeak ontsa finkatu behar dira. Ea, zoin dira ?

Mikel: Pilotari ez zaio punpe bat baizik eginarazi behar. Hutsegiten delarik, pundua arerioarentzat da.

Jon: Bai bainan Mikelek ...

Erakaslea: Aski da. Ulertua dut. Saia gaitezen egoeraren antolatzen. Legea argi da bientzat ?

Bi mutikoak: Bai.

Erakaslea: Begirale bat behar duzue legea errespetatua denetz zaintzeko. Haatik, epaile horren erranen kontra ez duzue joan beharko. Ados zireztea ?

Bi mutikoak: Bai. Ados gira.

Erakaslea: Ni naiz zuen epailea izanen.

Mikelek: Ez dut gehiago pilotan aritzeko gogorik. Jon, heldu zira ? Harrapaka ariko gira.

Jon: Ba, arrazoin duzu. Asea nintzen pilotan aritzetik.

ASPERGARRIA !

Anita: Alo, zu zira Ximun ?

Ximun: Bai, zer duzu Anita ? Zer gertatzen zaizu ? Zainetan iduri duzu!

A: Ene burasoak erosketen egitera joanak dira eta ene anaia ttipia zaindu behar dut. Aspergarrria da! Ez dut gehiago jasaiten!

X: Kalma zaitez! Zer egin du?

A: Beti ondolik dut! Beti sartu nahi du ene ganbaran zer egiten dudan ikusteko. Gainera nik egiten ditudan guziak egin nahi ditu.

X: Normala da! Zazpi urte baizik ez du!

A: Gainera erasiatzen baldin badut, erraiten du burasoei salatuko duela. Eta bistan dena sinetsiko dute. Nik dut beti biltzen! Hark huia eta nik peka!

X: Jakin ezazu ez dela hobeki arreba haundiago baten ukaitea! Uste du etxeko anderea dela! Beti manatzen nau, beti nik dut mahaina bildu behar, beti ene gain baseren egitea. Iduritzen zait haren esklaboa naizela.

A: Berantetsia dut haundia izaitea! Horrela ez dut gehiago mukuzu mindulin hori ikusiko! Zer xantza duen Peio! Seme bakar.... ametsa ! Aitamen autoa entzuten dut. Uzten zaitut. Bihar artio.

P: Alo Ximun? Hemen Peio.

X: Bai, gau on. Zer duzu ?

P: Aspertzen naiz. Gaur ere, egunero bezala ene burasoak berant sartuko dira eta aspertua naiz bakarrik egoiteaz. Gainera iluntzen hasia du eta bakarrik naizelarik ez naiz sobera fida. Beti iduritzen zait azantzak entzuten ditudala ondoko geletan.

X: E! Ez zara ohartzen zer xantza duzun! Nehork ez zaitu nardatzen! Bakea duzu! Nahi duzuna egin dezakezu ! Jaun eta jabe zara !

P: Ba pentsa! Burasoak beti gainean ditut. Ez dut domonistiku bat egiten ahal; berehala inketatzen dira! Gainera lanak beti bikain egin behar ditut! Haientzat itzalik gabekoa izan behar dut! Zonbait aldiz amets egiten dut anaia edo arreba bat badutala eta ene ametsak eta sekretuak hari erraiten dizkiodala!

X: Zer sekretuak anaiari ? Hori bai zinezko ametsa! Uzten zaitut lanak bukatzekoak baititut. Bihar artio.

P: Bai, pasa gaun on !

Berantetsia

Kattalin Sallaberry
2012ko maiatzean

DENAK TREBES

Mikel : Egun on Martta.

Martta : Ez iezadazula egun onik aipa !

Mikel : Zer gertatzen zaizu, ba ?

Martta : Zonbait aldiz iduritzen zait hobe nukeela ohetik ez ateratzea.

Mikel : Lasai zaitetz eta mintza. Segur naiz zure nahigabeak ez direla ezin ahantzizkoak.

Martta : Jeiki naizenez geroztik, mila malestrukeria egin dut. Lehenik, jantzi berria nintzelarik, xokoletesnea isurarazi dut. Gero erhia atean kokatu dut. Beranta bildu baitut, autobusa sudur azpitik pasatu zait. Amak ordun autoa hartu nahi ukan du eta ohartu da argiak gau guzian pizturik egonak zitzaizkiola !

Mikel : Zer giroa zitekeen zuen etxean goiz huntan ! Nola etorri zira ba ?

Martta : Auzoari galdegin diogu eraman nazan.

Mikel : Egoera guziek aterabide bat badute. Prestatu duzu ebaluaketa ?

Martta (zainetan) : Zer ?????? Ebaluaketa ???!!!!!! Zoin ?

Mikel : Nor-Nori orainean eta iraganean.

Martta : Ai ama maitea ! Gehienik hastio dudana !

Mikel : Uste dut denei arrotza iduritzen zaigula : gatzazkio, zatzaizkidate, zintzaizkieten... Matrailetan min egiten du !

Martta : Erakasleari joanen natzaio eta galdeginen diot ez duenetz heldu den astera pusatzen ahal.

Mikel : Ideia ona. Ea urrikalduko zaigunetz !

Martta : Zer egun madarikatua.

Mikel : Are Martta, bihar beste egun bat izanen da

Martta : Agian bai, agian bai !

Kattalin Sallaberry

2017ko abenduan

EROSKETETAN

Ama: Gaur aste guziko erosketak egin behar ditugu; erna gaitezen !

Haurra: Bikain! Tenizak erosiko dizkidazu!

Ama: Ez, gaur janaria baizik ez dugu erosiko!

Haurra: Badakizu ama Kelogzak aspalditik bururatuak ditugula.

Ama: Bai bainan errana dizut ez ditugula gehiago erosiko asukre sobera dutelako.

Haurra: Eta zer janen dut beraz ? Badakizu ez dutala besterik maite!

Ama: Bakea emazu! Fruituak eta ogi eta ezti jan itzazu. Bitaminaz beterik dira.

Haurra: Berk! Eztia hastio dut! Pizza bat erosten ?

Ama: Ados. Ostiral arratseko atxikiko dugu. Entselada on batekin afari hauta ukanen dugu.

Haurra: Eta Koka ? Koka erosten bagenu ?

Ama: Ez! Badakizu arras untsa edari horren kontra girela! Are, zoazi laster batez esneki zorbaiten eroatera. Maite dituzunak hauta itzazu bainan prezioari kasu eginez.

Haurra: Bai, badakit. Ez merkeenak eta ez karioenak. Erosten ahalko ditut « mars » batzuk ?

Ama: Ez eta ez! Bainan zer duzu gaur ? Azken aldia da erosketak elgarrekin egiten ditugula!

Haurra: Berdin zait! Zernahi gisaz beti hola da zurekin! Ez duzu sekulan nik maite dudana erosten! Ez zira amatxi bezala! Hark goxokiak eta Koka-Kola erosten dizkit.

Ama: A, ez dudala maite duzuna erosten ? Hola baldin bada, pizza bere tokian pausa ezazu eta gero xokolatezko iaurta goxo horiek ere hartu tokian ezar itzazu. Nik ditut hautatuko. Hau sarrazu buruan, koska tzarra, zu: oro nahiz, oro gal !

Adjektiboak
Baizik ez
Ats dituzak

Katalin Sallaberry

HAURRAREN NAHIA

Haur bat eta bere ama (edo aita).

Haurra : Ama, joan naiteke Marinaren etxera ?

Ama : Ez, goiz huntan dentistarengana ereman behar zaitut.

Haurr : Eta arratsaldean joaiten ahalko naiz Marinaren etxera?

Ama : Ez, abisatua zaitut amatxi heldu dela eta ikusi nahiko zaitu.

Haurra : Bihar goizean beraz joaiten ahalko naiz !

Ama : Asteburu hau biziki hartua dugu eta orain geldi zaitez gauza beraren errepikatzetik !

Haurra : Bainan ama, Marina ene lagun hoberena da eta hitzemana diot harengana joanen naizela. Otoi, ixtaño bat baizik ez naiz egonen !

Ama : Hitzemaiten dautazu oren erdi bat baizik ez duzula han pasatuko ?

Haurra: Bai ala fede! Zin egiten dautzut oren erdi ttipi bat baizik ez dutala pasatuko Marinarekin.

Ama: Beraz, sarri, dentistaren ondotik, joaiten ahalko zira.

Haurra : Bikain ! Ama bikaina zira, munduko bikainena !

Ama : Presta zaitez abia gaitezen. Uste dut beranta biltzen ari girela.

Kattalini Salbaleru
2011 / 3

JATETXEAN BEZALA

3 haur eta ama (edo aita)

Hiru haurrak batera: Ama, gose gira!

Ama: Zaudete ixtaño bat egun menu berezia egiten baitizuet. Anartean, mahaina ezar ezazue eta jar zaitzete.

Ama: Hara, Pette, zuri lur-sagar purea egin dizut xingar xuriarekin.

Pette: Egiazko purea? Milesker ama. Arratsetan hori da gehienik maite dudana.

Ama: Zuri Margarita, tomate beteak irrisarekin prestatu dizkizut.

Margarita: Hummmm! Zer asean eginen dudan!

Kattina: Eta niri, zer egin didazu ?

Ama: Zuri, azita osatu bat apailatu dizut: arroltze gogor bat, bi tomate xerra, entselada hosto bat, kollertara bat arto, lukainka bat.


Pette: Eta deserta gisa zer emanen diguzu?

Ama: Hautua baduzue: izozki bat, fruitu bat, esneki bat edo pastizeria bat.

Margarita: Zoin untsa! Iduri du jatetxean garela!

Kattina: Bai eta gainera kitorik da!

Ama: Ez da arras kitorik: muxu bana emanen didazue.



Kattalin Salaberri

Mahain apailaketa

2 jokolari: ama eta haur bat

Haurra: Gaur dira heldu aitatxi eta amatxi ?

Ama: Bai, mahain polit bat apailatuko dugu.

Haurra: Ezartzen ahal dut ?

Ama: Bai. Ea zenbat izanen gira ?

Haurra: Zu, aita, ni, aitatxi eta amatxi ... beraz bost. Zenbat platera ezarri behar dut ?

Ama: Zaude: lehenik dafaila polit bat ezarriko dugu, pesta egunetan baliatzen dugun hura. Hara! Orain platerak ezar ditzakezu.

Haurra: Zenbana?

Ama: Hiruna: kalota saldarentzat, xabal bat arrainkiarentzat eta beste xabal bat gaineratekoarentzat. Har itzazu bazterra urreztatua dutenaK.

Haurra: Eta zenbat baso ?

Ama: Bina: bat, haundiena, arnoarentzat eta beste bat urarentzat. Zuretzat bat baizik ez duzu ezarriko. Oroit zirea kubertak nola ezartzen diren?

Haurra: Bai: eskuinaldean koilera eta kanita eta ezkerrean sardeska.

Ama: Biba zu.

Haurra: Paperezko zerbitak ezartzen ditut ala oihalezkoak ?

Ama: Gaur oihalezkoak ezar itzazu; behar ditugu aitatxi eta amatxi ohorezki errezebitu.


Haurra: Erdi horrek frango hutsa dirudi. Baratzera noa lili zonbaiten biltzera.

Ama: Negua da! Ez duzu lilirik atzemanen. Aldiz, gorostia bil dezakezu etxe gibelego oihanean. Har itzazu aixturrak kirtena frango lodia baitute.

Haurra: Zer da gorostia, punpula gorriak dituen landarea ?

Ama: Hori bera!

Haurra: Zoin ederra izanen den gure mahaina! Aitatxik eta amatxik erranen dute erregeei baino harrera hobea egiten diegula.



Katalin Salazar
2013 - uztavila

MAHAINEAN

Aita, ama eta bi haur

Aita eta haurrak jarririk daude. Amak eltze bat ekartzen du mahain gainera.

Aita : Maddi, xutik zireno gatza ekarrazu plazer baduzu.

(Amak gatza mahain gainean pausatzen du eta jartzekotan delarik)

Haur bat : Ama jarria ez zireno, ekarradazu beste kanita bat hau arrunt kamutsa delako.

2. haurra : Sukaldean zireno ogi gehiago ekarrazu !

1. haurra : Bai eta hor zireno ere, ura ekarrazu. Ez dakit mahaina nork ezarria duen bainan gauzen erdia falta da.

(Ama jartzeko punduan delarik) Aita : Xutik zireno, eltzea gibelerera ereman ezazu eta gibeleratekoan gasna ekarrazu.

(Azkenean ama jartzen da) Orain, afaria bururatua ez dutano ez naiz xutituko eta jarria naizeno, zuk *(aita erakutsiz)* mahaina bilduko duzu, zuk *(1. haurra erakutsiz)* jatsa pasatuko duzu, zuk *(2. haurrari)* baserak garbituko dituzu eta zuek *(3 ak erakutsiz)* baserak idortuko dituzue. Eta lan horiek denak bururatuak ez direno nehor ez da sukalde huntatik aterako. Bitartean, telebistaren aintzinean plantatuko naiz eta berriak bururaino entzunak ez ditudano ez zaituztet ene ondoan ikusi nahi !

Aita: Bon, bon, ez du balio samurtzea!

(Ahapetik hurrei) Zer egin dugu ama horrela samur dadin ?

Bi haurrak *sorbaldak altxatuz eta harrituak*. Pfut!

Kattalin
Salaberri

OFIZIOAK

Erakaslea eta Wikasle

Erakaslea: Zer ofizio egin nahi zenukete? Bakoitzak bere gogoan erran beza.

1.ikaslea: Nik, etxeak eraiki nahi nituzke. Etxe haundi eta azkarrak eraiki nahi nituzke. Hargin izan nahi nuke.

2.ikaslea: Nik eriak artatu nahi nituzke, pikurak egin eta sendagaiak eman eta bereziki gaizki direlarik kemena eman.

Erakaslea: Sendagile beraz ?

2.ikaslea: Ez, erizain klinika edo hospital batean.

3.ikaslea: Nik kanpoko lanak maite ditut eta laborari izan nahi nuke. Ardi tropa bat banuke eta gasnak egingo nituzke, Lapurdi osoko gasna hoberenak.

4.ikaslea: Nik, haurrak zaindu nahi nituzke. Eskola batean edo haurzaindegi batean lan egin nahi nuke. Uste dut ttipiekin lan egitea nahiago nukeela.

Erakaslea: Eta zu mutu zaude. Zoin da zure ametsa?

5.ikaslea: Maraxela izan nahi nuke, abereak sendatu nahi nituzke.

6.ikaslea: Nik iturgin izan nahi nuke aita bezala. Berogailuak, ur-hodiak, garbigelak muntatu nahi nituzke.

7.ikaslea: Okin izan nahi nuke, egun guzia usain gozoren artean pasatu. Mota eta kolore guzietako pastizak egin nahi nituzke. Erosleak pozik lirateke nirekin!

8.ikaslea: Kamiun-gidari izan nahi nuke. Mundu guzia kurritu nahi nuke, egun batez hemen biharamunean beste nunbait; xoria bezain libre nintzateke...

9.ikaslea: Ile-apaintzaile izan nahi nuke. Bezero bakoitzari erranen nioke ileak nola moztu, nola koloreztatu, nola apaindu behar lituzkeen.

10.ikaslea: Nik baratzezaina izan nahi nuke. Orain jendeak ez du astirik bere kanpoa txukun atxikitzeko. Segur naiz lana banukeela belar eta hesi mozten eta lili ereiten.

11.ikaslea: Nik ordinagailuekin lan egin nahi nuke. Gure etxekoa beti panan da eta teknikari bat jinarazi behar dugu. Nihaurek ikasiz nihaurek konpon nezake!

5.ikaslea: Eta zuk, beste lanbide bat hautatu behar bazenu, zoin hauta zenezake?

Erakaslea: Ez duzue sekulan asmatuko: ERAKASLE, zuek bezalako ikasle zintzoekin lan egiteko.

Ikasle guziak oihuka: Ueeeeee!

OLENTZEROREN LAGUNTZEKO

Olentzero: Akitua naiz! Urte bukaera hori enetzat zinez dorpeegia da. Zahartzen ari naiz eta ene lan zama ez da ttipitzen. Olentzero bazinate, nola egingen zenukete oparien partekatzeke ?

1. haurra: Ni, Olentzero banintz, abenduaren hastapenean hasiko nintzateke. Denbora gehiago banuke denetara joateko. Aste guziz piska bat egingen nuke.

2. haurra: Erraiten duzuna ez da xuxen! Eguberri ez litzateke beraz abenduaren 25ean! Eta oporrak, beraz, bakoitzak baluke bere garaia ? Ez, ezinezkoa da !

3. haurra: Nik, aintzinetik prestatuko nituzke haurren opariak, bakoitza bere izenarekin. Gero, helikopteroz ibiliko nintzateke eta herrien gainetik pasatzean pakete haundiak botako nituzke. Haurrak jinen lirateke beren oparien xerka.

4. haurra: Nik langileak hartuko nituzke : bat Lapurdin gaindi ibiltzeko, beste bat Baxe Nafarroan gaindi, beste bat Gipuzkoan gaindi, beste bat Xiberoan gaindi, beste bat Araban gaindi eta azken bat Bizkaian gaindi.

5. haurra: Nafarroa ahanzten duzu, gainera hedatuena da. Nik ere zuk bezala egingen nuke bainan Nafarroarentzat bi langile hartuko nituzke. Langileak igorriko nituzke eta ni goxoan egonen nintzateke supazter xokoan !

6. haurra: Alfer-ziri batzuk zarete! Nik biziki maite nuke etxez-etxe ibiltzea. Haurren zorionari pentsatzeak kuraia emanen lidake ! Olentzero da ofizio ederrena eta ni haundituta Olentzero izan nahi nuke.

Olentzero: Arrazoin duzu, ba. Dena den erretreta fitesko hartuko dut eta gazteago batek ene tokia hartu beharko du. Are, heldu den urte artio haurrak eta prestuki egon!

Baldintza
Baldintziak

Katalin Sallaberri
urtarrilaren 4a